

# J. Gisasola ta Eibar'ko Kantu zar bi

**J**UANITO Gisasola eibartar ospetsuak, korurako armonizatu zituan kantuetatik edo onentxuenak **Atxia motxia** ta **A mutil** izango dira, neuk ezautzen ditudanetatik beintzat. Amaika aldiz kantatu izan ditu Donostia-ko Orfeoia.

Kantu umoretsuak eta biziak diralako, koru askok, euren programak alaitzeko artzen dituz.

Orrengandik aparte badau beste bat, eibartarrentzat oso ezazuna dana ta noizbait danok kantatu izan doguna:

Ai Anton! Antontxu zera zu,  
kuartillo t'erdi gaitik  
oia saldu dozu.  
Aita datorrenian, nian;  
ama datorrenian, nian;  
etxetik kanpora bialduko zaitu!

Beste leku batzuetan, beste era batera kantatzen da: «Jerolimo, entzun zazu», soñu berdiñakin.

Euskaldun kanturik geienak, kantu Gregoriano antzera, serixuak diraz, ta inoiz triste txamarrak. Ez orraotxiok Gisasolak aukeratutakuak; onen geienak alaiak diraz. Baña, Frantzia aldeko Euskalerrikuak, eta baita Bidasoa inguruko Naparrua ta Gipuzkakoak, jokera geiago dauke olako kantu serixuetara.

Berriz, Bizkai aldiari, Bidasoa-z andiko **Ama, Irrintzina, Gerla ondoan, Solferiño-ko itsua** edo **Ixil-ixilik** bezelako poesia gozoa daben kanturik ezta billatzen, baña Bizkai aldekuak, orren trukez, ambeste poesia ez badabe ere, alaitasunian geiago diraz. Sarri zentzunik hako billauko ditugu alde onetan: **Txeru, Bili bili bonbolo, Zantzikitin** ta abar; baña beste gatz bat dauke: ritmoa.

Ta ez dira gañera Bizkai aldeko kantu alai guztiak zentzun bakuak, **Basatxoritsu, Orra or goiko...**, ta abar, zentzuna ta gatz daroiezenetarikuak dira, Bidasoa inguruko poesia ederrik ez badaroiere.

Zentzuna aitzatu dogunez, esan biarran gara, Bizkaiko orrek, ala ta guzti be gaur entzutzen diran musika bariak daroien kantuak añakoak badirala. Zer dauke gaurko baltzegandiko inusikak modan egoteko, ritmoa izan ezik? Zer da ritmoa ez-ezik **rock and roll, calipso** ta orretariko soñuak daroiena?

Esan leike, gaurko gaztea, betiko lelukein aspertuta, ritmo egarriz dabilela. Gaurko jakitunak astarkizun asko egin dituz orren gañean, da badirudi gizonak garunetako zeluletan daroiala sartuta bere aintziñako jatorri basatiaren (salbajiaren) erenzia, ta ritmoak esnatzen ei ditu aspalditik lo euazen emoziozko zelulak. Ortik ejenpluzat artu geinke, euskalduna **aurreksua** edo **biribiketak**

(Viene de la pág. 23)

## D. Niceto Muguruza

1914.—LA MISION DE LA ESCUELA DE ARMERIA.

1915.—ESTADOS PSIQUICOS Y EN ESPECIAL DEL ORDEN AFECTIVO E INTELLECTUAL. Un estudio psico-analitico, precursor de estudios similares de época posterior.

1916.—REGLAMENTACION HIGIENICA DE LAS INDUSTRIAS INSALUBRES.

1917.—PAPEL QUE REPRESENTA EN LA VIGORIZACION FISICA E INTELLECTUAL DE LOS NIÑOS LA HIGIENE DE LA BOCA.

1919.—EDUCACION FISICA Y MORAL DEL NIÑO EN LA FAMILIA, COMO PREPARACION DE SU FUTURO DESENVOLVIMIENTO INTEGRAL.

1920.—LOS SENTIDOS DE LOS NIÑOS EN LAS ESCUELAS PUBLICAS.—EDUCACION POST-ESCOLAR DEL NIÑO.

Como puede observar el lector por los títulos de estos trabajos y conferencias, D. Niceto se adelantó con mucho a la exposición y proyectos de solución de problemas que, después, se han estudiado, y siguen sobre el tapete en todo el mundo.

Las Maestras donostiarras, enamoradas de la problemática y soluciones que el Dr. Muguruza apuntaba respecto de la higiene y educación infantiles, le suplicaron les diera una conferencia en la capital. Accediendo a estos deseos, el infatigable Dr. les dió una charla interesante y profunda acerca de la **BIOLOGIA DE LA EDUCACION**.

Es justo que el pueblo eibarrés haya querido perpetuar la memoria de su ilustre hijo con el monumento levantado en su honor en el **JARDIN DE CONVALECIENTES**.

Quiera el Señor que los numerosos jóvenes eibarreses que han seguido sus huellas en la elección de profesión, sigan su camino inundado de luz y de interés abnegado por la salud de los niños y de los hombres entregados al trabajo.

I.

entzunda, egon eziñik, dantzarako goguan ipintzen dala: Ta soñu ernegarri orretan Bizkaia dogu nausi. Jakiña, orrek ez dau esan nai, Bizkaitik kanporako euskaldunak umoretsuak ez diranik. Beste leku batzuetan be badira kantu alaiak, Bizkaian bertan serixuna diran moduan.

Bizkai aldekuak esan ezker; Eibar-kua esatia berdiña da. Eibar-ko euskertiak eta oiturak bizkaitar kutsu geiago daukelako.

Juanito Gisasola-k armonizaziñoz tajutako kanturik geienak Eibar-en bere gaztaruan kantatzen ziranak dira.

Donostia-ko Orfeoia izango zan seguru asko, bere kantu alaiekin geien balikau dana, baña zoritzarrez, oindiok eztera biar bezin zabalduak Euskalerrian. Eibar-en bertan be, errikuak izanik, gazte askok eta askok ez ditxuez ezautzen da.

Jorge de Riezu musikologo on bat da; ez zan alperrik izan Aita Donosti bere maixua. Ointxen dala urte batzuek, Buenos Aires-ko (Argentina) Editorial Vasca **Ekin-en Flor de canciones populares** vascas argitaratu eban. Liburu orrek, ederki egiña, bere 356 orrialdietan 100 euskal-kanta daukaz, euren musika ta guzti. Geien-geienak, erri-kantak dirancz, ez dauke egille izenik, baña norbaitek armonizatuak diranak, beti ipintzen dau nor eta noiz armonizatuak diran, naiz piano, koru edo orkesta. Ta pena aundiz ikusten da, Riezu naparrak ez zituala ezautzen Gisasola eibartarren armonizaziñuak.

Donostia, Dufau, Azkue, Sallaberry, Bordes, Guriñi, Usandizaga, Zubizarreta ta abar, sarri oitxatzen ditu, baña eibartarra ez dau ezautzen; naiz ta bere **Atxia motxia** ta **A mutil** liburu orretan ezarri. Geuk eibartarrok ez ete dogu ardura gutxitxo ipintzen?

Zarrak gogoratzeko ta gazteak ikasteko, kantu bien bertsuak ipintzera noia:

**Atxia motxia perolipan,**  
nere semea errotan;  
errotara nindoiala  
topau neban asto bat,  
kendu netsan buztan bat,  
ipiñi netsan beste bat:  
errota txikiak klin klan.

**Atxia motxia perolipan,**  
nere semea errekan;  
errekara nindoiala  
topau neban erbi bat,  
kendu netsan begi bat,  
ipiñi netsan herri bat:  
erreka txikiak plist plast.

Zentzunik ez badau be, bere melodia soñuak badau gatz ta ritmoa, ala be Gisasola-k tajutu eban bezela lau abots astun eta sei neska-mutillenen ditxuala.

Donostia-ko Orfeoia kantu au bere programan jartzen daben bakotxian, **Atxia motxia, canción popular eibarresa** edo **canción humorística de Eibar** irakorri izan dogu.

Penagarria bada Riezu-k ez ezautu biarra, penagarriaua la eibartarrok len arte gutxi badogu be, daukagun apurra balixatzen ez jakitxia.

Berriz, **A mutil**, neska-mutillenen sei bozetara dago, Izatez, oindiok lena baño biziagua ta politagua da.

Kantu onen lelengo puntua bi aldiz kantatu biar da, ta bigarrena, lelengo erdia bitan eta bigarren zatia irutan. Era onetara:

**A mutil kopetillun, begiak logure:** (bi aldiz)  
**baietz uste dok baña** (bi) ez nok ire gure (iru aldiz).

Eta bertso bakotxaren ondoren bere estribillua: **La-ra lala, ra-la...**

**A mutil kopetillun, begiak logure:**  
**baietz uste dok baña ez nok ire gure.**

**Oraingo mutil-zarrak zer dute merezi?**  
**errekan beratuta, lexiban egosi.**

**Oraingo mutil-zarrak dute fantasie!**  
**soñian gerrikoa bestek crosie.**

Onen soñuak nor ez leuke ikaratuko? Euskalduna bai beintzat. Bertsuak eurak gatz ta piparra badaroiere be, musika orren ritmoa urdurigarria da. Gaur modan dagozenen zorriak bakua ritmuari aldetik pe.

Gisasola-k egin eban biarra, bene-benetan txalogarria ja. Noiz ikusiko ete doguz bere biarrak moldezko letretan argitaratuak?

J. SAN MARTIN.